



galdutako txanpona

PATXI
LÓPEZ DE TEJADA
FLORES

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

PATXI LÓPEZ DE TEJADA FLORES

galdutako

txanpona

CHORDATA

Garagardoa mahaiaren gainean jartzen dizun zerbitzariak historia bat dauka,
isuna haizetakoan ipintzen dizun poliziak historia bat dauka,
aulkia, edalontzia, bonbilla, alkandora egin zutenek,
denek historia bat daukate, zeukaten,
galtzada-harri bakoitzak ere historia bat daukan modu berean,
gari-zuntz guztiak edo gehienak
garai bateko toki bateko soka biltzen direlarik,
berri soka handiago batean biltzen dena,
kontaketan horrela deitzearren,
inoren baitan baina guztion baitan bizirauten duena
hurrengo chordata belaunaldiari bizkarrezurra osatzen dion arte,
hitzez eginak ei daudelako hitzunen
bizkarrezur amets zutabearen karbono hizki eraztunak
ziztuan haien urtaroko eguneroko lozorroan metatzen direnak,
soka zatiak baikara, amaitu gabeko historiak
ekaineko izpiak bezala haize leun batez tentetzen direnak.

BAKEA

Bakea deitzen diote isiltasunari,
egunen bata bestearen atzeko segida huts isilari
non batzuk hil egiten diren eta besteek zenbait urte pasata ahaztu egiten dituzten,
eta beste batzuk aspertu eta beste batzuk nekatu egiten diren,
eta elkarren arteko nolabaiteko txandapasari ere
bakea deitzen diote.

Bakean onargarriak dira
auto istripuz baten bat hiltzea
edo umeren bat edo gazteren bat minbiziak jota joatea,
edo langileren bat bere jardunean uste baino lehen bere egunak amaitzea,
edo legatza prestatzeko errezeta bat asmatzea,
polimero berri bat osatzea,
dantza berri bat sortzea
edo beste planeta edo galaxia sistema bat aurkitzea ere.

Bakean gauzak eta egitasmoak has eta buka daitezke,
dirua irabaz edo eta gal daiteke,
bizitzak eskatzen duen lana egin daiteke,
edo pixka bat gutxiago,
edo pixka bat gehiago,
eta gero patxada ederrean atsedena hartu.

Bakean gelditzea badago ere,
partekatzea, pentsatzea, hizketan aritzea...
Bakean egitan egin ezin den bakarra,
debekatuta dagoen bakarra,
galdetzea da.

BEGIRADA

Beste baten begirada da bitza ematen diguna
begiraten duenari bitza ematen diona
gu eta ez beste ezer begiratzean galtzen duen bitza,
begiratu gabe bizitarik ez dagoelako
begiratu izan gabe ez dagoelako bizitarik
eta irakurtzea begiratzeko modu mantso bat besterik ez delako,
mundua eta ez elkarren azala irakurtzea bitza galtzea al da?,
elkarren azala eta ez bizidunek eta hildakoek idatzitako liburuak irakurtzea bitza
galtzea al da?
Nork daki,
begiratzeko gaitasun bera da itsu egiten gaituena.

EDERTASUNA

Edertasuna manipulazio bat da
gure genek antzeztera behartzen gaituztena
elkar ezagutzeko grina piz dadin
eta beraiek hurrengo belaunaldira
isuriak izan daitezen.

Edertasuna manipulazio bat da
natura osoak antzezten duena
gure nekea bihotz-begietatik galduz
egun eta gau bakoitza buru dezagun
eta ur-izarren karraska usaintzeko
norbait geldi dadin.

Edertasuna jainkoa da,
edo eternala izan nahi duen zerbait
bederen.

HUNTZA

Huntza hostoak,
bakoitza bete argi bazka jasotzeko ahurra zabalik,
ihintza hartzeko eta edateko,
eskean beti, norgehiagoka beti,
zibilizazioaren pareta harresitatik ihesi,
gora,
azpitik esetsiko baliete bezala,
aurrekoak geroagokoak baino gutxiago bailiran,
edo alderantziz,
nora ezean hazten.

EZ DA EZER GERTATZEN

Liburuak apaletan lo daude,
suizidak seigarrenean lortu egiten du,
zakurrak gose dira
eta gaurkoarekin ez dute aski,
eta horiek eta gainontzeko ontziak
ez dira gaur beteko,
ezta hustuko ere,
galdutako txanponarentzat goiz baita oraindik
baina bihar berandu izango da,
baita zuretzat eta niretzat ere.

BAKARRIK

Nire bazterrean horrenbeste denbora eman nuen
nire bakardadea bertan itsatsita gelditu zela
uste nuela,
bakardadea nire txokoari zeriola nonbait,
eta bakardadetik aldendu nahian hirira jo nuen,
atzerrira jo nuen, bulegoetara, dendetara, tabernetara,
erakusketetara, leku garrantzitsuetara
iristea lortu nuen arte,
baina Vatikanon, Panteoian,
Partenoian,
Egiptoko piramideen artean eta New Yorkeko
Times Square plazaren erdian
bakarrik sentitu nintzen, jendarrean are bakartiago oraindik agian.

Adiskideekin edo familiarekin naizenean aldiz
ez naiz bakarrik sentitzen
baina bakarrik egon nahi dut.

Nire semeari ulertu nion arte ez nion nire buruari ulertu,
bera oso bakartia baita, bere gelan isolatuta, etxean inor ez dagoenean,
baina gurean iskanbila sortzen denean bere gelara erretiratzen da ere,
gustura,
eta orduan ez da inolaz ere bakarrik sentitzen
alaitsu baizik,
jendearekin atea irekitze hutsaz elkartzeko aukera soilarengatik akaso,
auskalo.
Festa aldameneko gelan nahi du,
oso gutxitan parte hartzen duen arren.

GOIAN ETA BEHEAN

Bizidunok goian gaudela diote
hildakoak lurperatu egiten dugulako,
hil ondoren ondo edo hemen baino hobeto daudela
adierazteko goian daudela diogun arren.

Nagusiek, aberatsek, agintariek
goian daudela uste dute
besteen gain boterea edo eragina
agertzea
daukatelako,
kateari heltze berak lotzen dien arren
eta libreagoak ez diren arren.

Gazteek goian daudela oihukatu egiten dute
nonbaitetik igotzetik etorriko bailiran,
eta beste nonbaitetik jaistera joango bailiran.

ZEURE ZENTZUA SORTU

Zeure zentzua zuk zeuk sortu behar duzula
erantzuten dute filosofoek
mundu honetan zer egin eta zergatik
galdetzen duzunean,
zergatik bizi, zergatik maitatu, zergatik poesia idatzi,
zergatik seme-alabak izan eta hezi
denok lurpean bukatuko baldin badugu,
zu eta zure bikotea edo zure kuttuna
ez baldin bazarete elkarrekin zahartuko,
eta zure artean inork interesik ez baldin badu agertzen,
hazia ontzi igarokor batetik bestera
pasatzea besterik ez bada bizitza
Marco Aureliok dioen moduan.

Baina zure zentzua sortzean ematen baduzu bizitza
benetan zerbait aurkitzeko edo eratzeko aukerarik ba al dago?,
ba al ote dago egitan zurea den zerbait
gainontzeko eginbehar, kezka eta jarduera guztiak
alienazio bihurtzen dituena?
Egitan zerbait norberarena gu bezalako tximu imitatzailleontzat?
Edo zentzuaren bilaketa edo sorketa bera al da zentzua?
Eta horrela bada, zergatik ez esan?

ESATEKO ZERBAIT

Denok omen daukagu esateko zerbait,
abereek ere,
gauzek eta lekuek ere,
hizketan ari omen dira gurekin
entzuteko lana hartzen baldin badugu,
entzuteko dohaina baldin badaukagu,
entzuten jakiten edo ikasten badugu
Jaungoiko berak guri zerbait esateko omen dauka ere,
gutako bakoitzari zerbait propio eta berezia,
baina gero eta gutxiago entzuten dugu
gero eta zarata gehiago egiten dugulako
gortzeko edo isolatzeko asmoz edo.

Egia esan oso gutxitan gertatu izan zait bizitzan zehar
baten bat nirekin hizketan aritzean
puntu batean 'isilduko haiz behingoz?'
botatzeko ez bururatzea,
eta oso gutxitan ere
solaskidearen aurpegian puntu batean
'isilduko haiz behingoz?' botatzeko gogoia
ez ikustea.

Beraz, denok omen daukagu esateko zerbait,
baina ez diegu gauzei, animaliei ezta Jaungoikoari ere aditzen,
ezta elkarri ulertzen ere gehienetan,
denok esan beharrekoa arrastan daramagularik
zoko-izkina frankotatik, gau-egun askotatik,
arnasa galdu arte.

BENETAKOA

Bidaiatzean benetako bidaia egin nahi dugu,
lekuak benetan ezagutu,
pertsonek benetan ezagutu.

Harremanen arloan naturalak nahi ditugu,
benetakoak,
elkarrekiko benetako interesa agertzen dutenak.

Eta jaten dugunean benetako janaria nahi dugu,
jakina,
basa janaria, naturala, jatorra,
benetakoa.

Kalean beste batekin topo egitean
benetako agurra nahi dugu,
ez konpromisozkoa.

Benetan lan egin,
benetan hitz egin,
benetan lo egin,
benetan bizi.

Eta hiltzen garenean
benetan hil nahi dugu.

ASKATASUNA ALA HIL

Askatasuna ala hil!

aldarrikatzen dute iraultzaileek,
erresistenteek, matxinatuek,
baita beraien arerio eta zanpatzaileek ere,
alaitsu zentzu bat aurkitu zutelako
eta bide batez galtzeko parada ere.

Zergatik bizitza galdu

bizitzari zentzua ematen omen dionarengatik,

besteengatik? Jaungoikoarengatik?

Hitz eder batzuengatik?

Auskalo.

Zertarako da hilotzaren askatasuna?

Norentzat?

Norena?

AZALPENA

Azaldu besterik ez du egiten, ez du epaitzen,
baina zer azaldu hautatzean epaitu egin du dagoeneko,
baita zer isildu erabakitzean ere,
baita nori azaldu aukeratzean ere, zein hizkuntzatan,
zein hitzekin, noiz, non,
horiek guztiak bere azalpenaren zergatiaren frogak direlarik,
ustezko azalpen objektibo bat plazaratu izanaren errua
egozten diotenak,
epaitu egin izana ukatzearen errua.

AGINDU BIOLOGIOKOARI

Seaskatik goizez jaikitzean minik ezean hilda zaudela dela horretaraino gorputzeko erresuminak nahierara bidaltzen dizkigunari,

egunez egun zutizera eta norabiderik gabe presaka ibiltzera behartzen gaituen horri, inora iristeko,

bikote-bizimoduko morrontzak edo banantzeko gabeziak eta azken beltzak oparitzen dizkigunari,

hilezkorra dirudien edertasun batekin edo bestearekin behin eta berriro engainatzen gaituenari,

geneak beste haragizko ontzi batzuetan isurtzeko bakarrik fisikoki elkartzera bultzatzen gaituenari,

ustez elkar betez eta bizitzaren zaporea dastatuz

behin eta berriro libre dela uste duen beste esklabo-belaunaldi bat sortzea eta haztea lortzen duelako.

NAGIA

Eguzkiak komentuko pareta jotzen du
eguerdia baino apur bat beranduago
inork erabiltzen ez duen patioan,
gizaki baten bitzta baino luzaroago iraun duen pareta
ia zuritu arte; giro isila
itzalen txintxirrin geldoan,
siesta giroa,
gizaki baten bitzta iraungo duena
bertan nintzelako.

DEABRUA

Orein handi iluna,
goroldioa lastu egiten da
ordu oker horretan
non egunekoek ez dakiten beraien unea den
eta gauekoek ez dakiten beraien unea den,
non ez den ikusten,
non deabruak zerbait norbait hiltzen du
zerbait norbait bizi dadin,
eta gu garelarik,
lur ilun sakon hezea piztuta bizirik,
Lurra bakarrik,
lur bakarra,
lur oro,
gu gara,
Lurra, lur heze distiratsua,
deabrua
eta jainkoa,
gizona eta emakumea
eta umea,
argirik ez dugu behar
eguzkia behar baitugu.

BARRASKILO ZONBIAK

Horixe bera bilatu

Interneten, you tuben,

Snail Zonbies, National Geographic,

eta amaitutakoan zera azaldu,

faborez,

geneek zer egiten diguten guri,

ontziei, fededunei,

politika, poesia, zientzia, erlijioa barne,

amodioa eta jabetza, aberastasuna barne,

pobrezia eta meritua barne,

porrota eta garaipena, galera eta oparotasuna barne.

Orain, gabezia? Gabezia non? Zer? Zergatik? Zertarako?

Nostalgia al da gure erokeria bakarra?

Gure zentzugabekeria al da gure disfuntzio bakarra?

Gure jakinduria bakarra al da nostalgia?

ZURIA

Zuria zen dena izatea sortu aitzin,
iluntasuna eta beltzak
materia hiperdentsozko puntu horretatik
sortu gintuen eztanda hark zabaldu zituelako.
Gauzarik gabe itzalik ez.

Zuriz janzen dira lekaimea eta fraidea, zuriz lehen jaunartzea hartzera doan nerabea
eta emaztegaia,
zuriz janzen dituzte etxeko paretak ere
eta zuria astintzen dute bakea eskatzen dutenek,
zuriak lorearen petaloak eta zuria olatuen aparra,
zuria hortza, ilargia, elurra, esnea,
frutak, barazkiak eta arimak zuritu egiten ditugu
barneko koloreak ikusteko edo,
argi orbanak kentzeko edo,
zuria ez dena kolorea baita,
zurigabea, itzala, gaitza.

Zuria bizitza baldin bada eta koloreak
bere deskonposizioaren emaitzak, espektroan sortzen direnak,
orduan izate osoa ez da bizitza heriotza baizik,
izan zen edo den beste zerbait baten ustelkeria,
eta gu hemen beste baten edo beste batzuen harrak edo mamuak.

UR TANTA

Gauzak berdintzen

zatiak orobatzen

mendiak higatzen

hondartzak biltzen

formak hiltzen

formak osatzen

arimak disolbatzen

gorputzak hazten betetzen

emaitzak lausotzen

oldeak histen

zuzenak okertzen

ahanzturaren plasman

egarria asetzen itotzen

PERTSONAIAK

Telebistako berri aurkezle ohia ezagutu zuen
betiko taberna madarikatu hartan
garagardo aparrek ezpain-kutsuak utzita,
baina agurtu ondoren keinuak ez zizkion ulertzen,
eta bere keinuei ez zuen erantzuten asmatzen,
elkarren txisteak barrez hartzerik ez,
eta hala eta guztiz ere, noizean behin,
begirada zuzen haietako bat jasotzen zuen.

Ez nau ezagutzen, pentsatzen zuen,
zergatik ezagutu beharko ninduke ez baldin baninduen ezagutzen,
pentsatzen zuen,
ez zen bera, ez naiz ni,
pentsatzen zuen,
iraganetik datorren beste mamu bat da,
pentsatzen zuen,
denborarekin joango da.

ARRAKASTA ISTORIOAK

Denok arrakasta istorioengandik gatoz,
iraun zutenen, ekarri gintuztenen, joan zirenen
arrakasta istorioengandik hain zuzen ere,
iraun zuenaren gainean
eta joan zenaren gainean gertatuak,
gertatzen direnak.

Arrakasta istorioak denetatik egin daitezke,
porrotik tristenetatik ere,
eta horiek ere ez dira gainditu egin behar gainera,
perspektiba kontua baita, besterik ez.

Dena arrakasta istorio bat da egia esan,
eta ez baldin baduzu horrela ulertzen
ez duzu ezer ulertu.

ASKATASUNA

Munduaren bakardadea arnastea haitz baten gainean,
azken finean, ezer baino lehen,
arrano baten modura,
munduko aire hotzaz eta gordinaz birikak betez,
eta edozer egiteko gai zarela jakinda
ezer ez egitea.

MERLINEK ESANA

Uretan dago, landareen azalean dago,

ihintzean dago,

lo dago, esna dago,

sua da,

legea da,

legean dago eta iruzurrean dago,

otsoaren biloan

eta bildotsaren adatsean.

ENE BEGIETAN BEGIRATU

Ametsen sustrai piztuak,
etsipenen eta oinazeen ur galduak
begira itzazu ene begietan barrena, bidaiari hori,
nire helmuga berdinerara zoazena,
irlak begiratu non ez nintzen inoiz egon,
maite ez nindutenak,
maite ditudanak,
mesfidantzaren txinparta aberearen distira gogorrean.

Ez dira arimaren leihoak,
baina zerbait badarit bi zulo beltz horietatik.

Zer gerta era.

ZURE IZENA ATZEAN UZTEA

eta izatera behartu gaituen iruzurra,

zure buruarekiko batik bat,

pertsonaia atzean uztea

egiazko nia delako hori berreskuratzen saiatzearren,

gustu emateko beharra...

eguneroko koldarkeria txikiak eta handiak...

etorkizuna, itzala, pentsamoldeak,

elkar ikaratzeko beharra...

kontatzeko istorioak...

Aurrean zerbait utziko al lizuke?

Barruan zerbait utziko al lizuke?

Bultzatzen zaituen - osatzen joan zaren iragana ba al dago zure buruari kontatzeari
uztea?

BELDURREZKO FILMAREN PROTAGONISTAK

Neskato hura, beldurrezko filmaren protagonista,
gaixotasun ezezagun batek jota hil zen,
baita bere ama ere, egunero
filmatzera laguntzen ziona,
zuzendariak hurrengo filmetan huts egin
eta bere diru guztia galdu egin zuen,
eta ez zuen harrezkeroztik beste arrakasta bat ere lortu,
kamerarietako bi auto istripu batean hil egin ziren
hiru urte geroago,
apaiza papera egiten zuenak bere buruaz beste egin zuen,
etxea non eszena gehienak
grabatu zituzten
erre egin zen,
itsasoko eszenetarako erabili zuten belaontziak
beste baten kontra jo zuen eta hondoratu egin zen,
eta etxearen jabeak bizirik diraute,
baina ez diote elkarri hitz egiten
eta oso gutxitan ateratzen dira etxetik.

ARRANOA

Arranoa banintz gauez egingo nuke hegan bakarrik

aire hotzak hegalak erre arte

birikak begiak lumak gogortu arte

haizea nire barrenetan entzun arte

pisua besterik ez bihurtu arte

eta haizea dabilen bitartean iraun.

EROSTEZINA

Zu, zure burua erostezina deitzen duzuna,
zenbat aldiz saltzen zara egunero?
Ez al da jaten duzuna, janzten zaituena,
aterpetxeen zaituena zure salneurria?
Ez al da zure pobrezia erosleen faltaren emaitza hutsa?
Ez al zenuke zure burua berriro salduko
egunero arreta pixka baten,
diru pixka baten,
argi pixka baten truke?
Nondik kritikatzten duzu arrakastatsua?
Ostrazismotik?, utzikeriatik?, tristurarik?,
txikikeriatik?, izan zitekeenaren nostalgiatik?
Zureari eutsi bederen! Duina izan!

Tximino imitatzaila zara, beste batzuk baino okerrago antzeratu duzu, besterik ez,
baina imitatzeari ekiten diozu uneoro etengabea, betiko moduan, gainontzekoen
moduan. Zein konbentzio, zein usadio ez duzu onartu, jakin baldin badaiteke?

Auto-errukirik ez, zure burua ez idealizatu eta gizon edo andre bat bezala jokatu,
daukazunaz gozatu eta zure burua saltzen lortu duzuna ez eralgi mitorik merkeena
erosiz, galtzailearena, erostezinarena.

ERASOTZAILEAK

Erasotzaile talde bat agertzen da
herriaren alboko gainean,
geldirik daude,
armak ikusten zaizkie,
asko dira, guretzat gehiegi.
Zer egin behar dugu? Ihesi egin?
Igo eta hizketatzen saiatu?
Armak hartu eta aurre egin?

ARRAZOIA EMAN

Zertarako balio zizun arrazoia eman zizutela?,
zertarako balio zizun arrazoia ez zizutela eman?,
zertarako zenuen ala ez zenuen
jakitea?

Jakin ez izana?

Gertakariak soilik gelditzen direla esango nizuke,
edo horien ondorioak,
baina hori ere ez.

Gertatu ez zenaren gabeziak
zu husten eta betetzen baitzaitu beste inor ez,
oroitzapen bat ez izatearen oroitzapena,
hain zuzen ere.

BIZIRAUTEN

Zikoina itxurako guraso oromaitatzaileek eta inozo-ameslariak gakartzate
Parisen bizi diren gene iruzurgileen enkarguz
zoriontsu izateko omen,
eta behin jaiota,
bazterreko auzuneraren baten ospel ilaun antzura,
norberak bere argia piztu eta bete egin behar
hainbat udazken habian hitzak, ameskeriak eta baloreak edoskiz igaro ondoren,
matazari ekin behar zaildu arte,
jaso, eutsi, hazi, gorde,
lehia galbidetsuan ikasi,
saltzen jardun,
zorrotz lauso denen kontra urteen poderioz kamustu arte,
bakandu arte,
koloreak galdu arte,
eta guzti hori egun pare batean, bi egun,
zeinetatik bat baino gehiago lotan ematen dugun,
nonbait amatatu baino lehen estalgabetzeko une batez
besteak ez zirela gaiztoak joko berean bizirautek saiatzen baizik,
horrenbeste negu epaitzen xahutu ondoren,
burukoikeria ez dela naturaren lege bakarra baina bai nagusia,
nonbait eten baino lehen beste bati edo beste batzuei pasatzeko
heriosuharra, nahia, beharra,
besterik ez.

LETRAK – ZIENTZIAK

Dirua da garrantzizkoa,
garrantzia galtzen duen arte

Dirua ez da garrantzizkoa,
garrantzizkoa bihurtzen den arte.

Gustukoa hautatuz gero ez da lana izango,
lana baldin bada finean gustua galduko duzu.

Interesatzen zaizuna.

TO DOS

Goizean igali umoak bildu, tupina bete,
arratsaldean hegian akuilua azturaz zorroztu,
goizean uberak eta padurak oskarbian histu
arratsaldean ospelean akitzen diren baino lehen,
goizean laidoak ertzetan eta estratetan egurastu,
arratsaldean bidaide bihurrien destainak artatu,
gauean ukendu elkorrak biziberritu, amildu.

BARKATU ERAGOZPENAK – ZURE ALDE EGITEN DUGU LAN

Astiroago joan

Talka egiteko arriskua

Pasatzen utzi

Zirkulazioaren bi noranzkoetako galtzada

Semaforo biribila

Abiadura mugaren amaiera

Irteera hurbil

AZTERKETA

Erantzun zuzena aukeratu

1

- A) Heriotzaz jabetzea da izatearen ametsetik iratzartzen gaituena.
- B) Heriotzaz jabetzea da izatearen ametsean liluratzen gaituena.
- C) Ez dago heriotzaz jabetzerik.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

2

- A) Santuak dira haiek traizioak barkatzeko gai direnak.
- B) Santuak dira haiek traizioak zigortzen dituztenak.
- C) Egun santurik ez dago, inoiz egon bazen.
- D) Aurreko erantzun bat faltsua da.

3

- A) Jaten duzunak jaten zaitu.
- B) Jaten zaituena jaten duzu.
- C) Elkar jaten dugu etengabe.
- D) Aurreko erantzun bat zuzena da.

4

- A) Denboraren poderioa da perspektiba sakonera sortzen duena.
- B) Urruntasunak denboraren joanaren hautematea eta eskuratzea eragiten ditu.
- C) Kontenplazioak inhibizioa behar du.
- D) Aurreko erantzun guztiak faltsuak dira.

5

- A) Bestearengan falta zaiguna bilatzen dugu.
- B) Bestearengan garenaren antzekoa bilatzen dugu.

- C) Harremanen helburua ez da berez elkar osatzea ezta partekatzea ere.
- D) Harremanek ez dute zertan helburu bat izan beharrik.

6

- A) Artearen formak aurkitu egiten dira.
- B) Artearen formak sortu egiten ditugu.
- C) Artearen formak azaleratu egiten ditugu.
- D) Aurreko erantzun guztiak faltsuak dira.

7

- A) Etxea gaua da egunean.
- B) Etxea eguna da gauean.
- C) Etxean gaurik ezta egunik ere ez dago.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

8

- A) Argiak elikatzen eta hazarazten gaitu.
- B) Argiak itzaltzen gaitu.
- C) Argiak erretzen gaitu.
- D) Aurreko erantzun bat faltsua da.

9

- A) Erronkarik gabe hutsegiterik ez.
- B) Erronkarik gabe egiazko bizitzarik ez.
- C) Bizitza bera erronka da.
- D) Erronkarik gabeko bizitza bat posible edo desiragarria da.

10

- A) Heriotza objektuaren galera da.
- B) Heriotza subjektuaren desegitea da.
- C) Heriotza ez da.
- D) Aurreko erantzun bat faltsua da.

DIRUAK EZ GAITU MAITATZEN

Jaungoikoari otoitz egin nion etor zedin
baina ez zen inor etorri
jaungoikorik ez dagoelako.

Maitasun aingeru bati otoitz egin nion
salbatzeko
baina ez zen inor etorri
azal berorik ez urik ematera.

Nire eskuei, nire oinei,
nire barrunbeko itsasoei erregu egin nien
egun handi bat emateko
arrantzaz beterik zeudelako,
baina haietan ito egin nintzen ia,
eta ez zen inor harrapatzera etorri,
eta ahurretatik labaindu zitzaizkidan arrain guztiak.

Dirua da niregatik zerbait egin zuen bakarra
otoitz egin ez nion bakarra zen arren,
nahi ez nuen bakarra.

Eta orain banaiz
lagunaren laguna,
maitalearen maitalea,
alaba baten aita nire amaren alaba dena,
isiltzen den gizaki bat isiltzen den mundu baten aurrean,
itzal putzu bat
argi putzu bat.

AUKERA

Aukera bat eskatu nizun
eta ukatu egin zenidan
eta ez nizuke esaten jakingo
asmatu zenuen ala ez
ez naizelako printzea
ezta nire erresumako erregea
hezur loratu pila bat baizik
inora bidean,
halere zera pentsatzen dut
egun eta gau
asmatu duzula
ez duzula asmatu.

NAHI DUGUNA

Nahi dugunak gehiegi nahi gaitu,
ametsek beren sustraiak eta beren lilurak
gogoan hazarazten dizkigutelarik,
iragana astuntzen,
oraina lapurtzen,
etorkizuna bideratzen eta desbideratzen.
Nahiek daukaguna kentzen eta ekartzen digute,
nahi berak izanik egitan daukagun bakarra,
ez daukagunaren nahiak alegia,
deseatzen dugunak lotzen baikaitu
askatasuna ostuz
askatasun hori nahi berek
osatzen duten arren.

ETA GERO ZER?

Galdu eta gero zer?

Zer ote dator emozioak kudeatzearen ondoren?

Zer dator itxaron ondoren espero zenuena datorrenean

edo ez datorrenean?

Zer ote datza ametsen errautsetan

edo zer ke dario bizitzaren edota amodioaren hondakinei?

Biluztasuna?

Gordintasuna?

URA

Onerako edo txarrerako izan zen
galdetzen diogu gure buruari
gure iraganaren gertakariak berpentsatzerakoan,
eta onerako edo txarrerako izan zen
ez dakigu,
edo badakigula uste dugu, baina iritziz aldatzen dugu
denborarekin,
iragana plastikoa baita, likidoa,
eta garena ere bai agian,
onerako edo txarrerako.

EGIA

Dokumentatuta dago,

Hiru lekukok elkar ezagutzen ez zutenak ikusi zuten

Argazki bat badago ere, ondo ikusten ez den arren

Berak aipatzen du, orri batean, ohar batean